2010-XI-26
Número **320.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

# astekaria

## EDITORIALA

### Galbidean

**Gogorrean jotzen ari zaigu krisi madarikatua. Eta gogortasun horretan kaltetuenak ezbairik gabe langile klasea, jende xehea, ari gara pairatzen horren ondorio bortitzenak. Nonahi ikusi ditugu enpresen itxierak, espedienteak, lankide eta lagunak langabezia bihotz gabean, lanean dihardute geroz eta langile gehiago pobreak bihurturik, hilaren bukaerara iritsi ezinean dabiltzan makina familia, lana topatzeko gazteon ezintasuna...**

**Panorama itzela da eta egoera ekonomikoari itzulbira emateko zantzu sendorik ez da ageri inondik inora. Are eta gehiago esan beharko genuke Europatik datozen berriei erreparatuko bagenie. Estatuen politika beharrezko orekatik aldendu da eta merkatuen diruzalekeria gailendu da, inongo kontrol politikorik gabe eta ezkutuko esku gutxi batzuk maneiatzen dutelarik. Baina honek baditu agerikoak diren erantzuleak. Horien artean ez dago, inolaz ez, langile klasea. Erantzukizuna interes ekonomikoen buruzagien artean, bankako gizon prestuen artean, eta beste aldera begira egiten utzi duten agintari politikoen zabarkeriaren artean aurki ditzakegu. Gutxi balitz gehienetan burdinazko ituna adostua dute eremu ekonomiko eta politikoek.**

**Indar handiz jotzen dute merkatuek, ordago itzelak boteaz. Horien aseezinak Europako banku zentrala Greziaren *erreskatatzera* behartu zuen. Hilabeteak joan diren honetan, Greziako adierazle ekonomiko eta sozialak hondoa jota daude, hori bai jendearen bizi baldintzak erabat okertu dira. Merkatuek begi bistaren erdian jarri dute dagoeneko Irlanda eta, presio itzelak direla medio, honek ere onartu du *erreskatea*. Beste behin neurri gogorrak jendearentzat, ordainduko duen jendearentzat, baina enpresen Sozietateen gaineko Zerga %12,5an geratzen da. Eta egoerari mugak jartzen ez bazaio Irlandan ostean zergatik ez Portugal, Espainia, Frantzia edo Alemania bera? Zeinek jarriko dizkio galgak merkatua ari den arpilatzen langileon eskubideen lapurretari? Europa galbide sakonean dago.**




**Adolfo Muñoz, Txiki, denuncia la política anti-sindical de la Diputación de Gipuzkoa, y felicita a las trabajadoras de las residencias por su lucha**

# "¿CÓMO NO PAGAR IMPUESTOS? OLANO SOLO HABLA DE ESO CON LOS EMPERSARIOS"

Los sindicatos ELA y LAB han respondido con una huelga de una semana en las residencias de Gipuzkoa a la firma en minoría de un acuerdo por parte de UGT y CCOO con la patronal Adegi, en connivencia con la Diputación gipuzkoana. El acuerdo afecta a cerca de 3.500 trabajadoras y trabajadores de las residencias, en su gran mayoría de titularidad pública y subcontratadas a empresas privadas.

La huelga, a pesar de los servicios mínimos abusivos y que afectan al 70% de las plantillas, ha servido para visualizar el descontento y la rabia de las trabajadoras ante un acuerdo insuficiente en materia salarial y que no recoge una de sus principales reivindicaciones como es la subrogación.

Además, cierra las puertas a la negociación en el ámbito de las empresas y absorbe los salarios superiores a los pactados en el acuerdo.

A todo ello hay que añadir que, para adherirse de manera individual al convenio y cobrar los consiguientes atrasos, se obliga a las trabajadoras a acudir a las sedes de los sindicatos UGT y CCOO, que no llegan al 20% de representación en el sector, cuando lo habitual en estos casos es que se haga la reclamación en el seno de la empresa.

Este hecho pone de manifiesto el nivel de connivencia de los sindicatos CCOO Y UGT, la patronal y la Diputación de Gipuzkoa gobernada por el PNV y Hamaika Bat.

En opinión del secretario general de ELA, Adolfo Muñoz, *Txiki*, "no aguantan que nadie les haga frente, y menos el sindicalismo reivindicativo; les ha perdido la víscera, llegando incluso a poner en bandeja la afiliación a los sindicatos UGT y CCOO".

"Los responsables del gabinete que preside Markel Olano sólo hablan con los empresarios de cómo no pagar impuestos, de seguir con las vacaciones fiscales. Desde ELA y LAB, los sindicatos que nos hemos opuesto a este atropello contra las trabajadoras del sector, hemos solicitado una reunión. ¿Cuál ha sido su respuesta? Nos han dicho que no tienen tiempo. Es su manera de hacer política".

En este sentido, *Txiki* Muñoz denuncia que la cultura participativa que propugnan no se corresponde con las decisiones que se adoptan en este campo. "Actúan como una aristocracia que decide no reunirse con aquellos que les plantean problemas. Han llegado incluso a enviar una carta al sindicato para que se ponga en contacto con una empresa subcontratada para que dé su opinión. Han perdido el sentido".

El secretario general de ELA quiere mostrar su apoyo a las trabajadoras de las residencias, al mismo tiempo que señala que el conflicto sigue abierto, ya que las reivindicaciones planteadas en su inicio están plenamente vigentes.




***Azaroaren 22tik 28ra greba eta mobilizazio astea izan zen Gipuzkoako adinekoen egoitzetan. Inposatutako gutxieneko zerbitzu eskandalagarriek langileen haserrea areagotu besterik ez zuen egin. Irudian, langileak Txara 2 eraikinaren parean, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren egoitza, Donostiako Zarategi pasealekuan.***

## GURE ESKU DAGO, BAINA LAN HANDIA EGIN BEHARRA DAGO

Hauteskunde sindikalen epealdi-trinkoa bere azken txanpan sartu da. Nafarroan, berriz, prozesua 2011ko maiatzaren 31 arte luzatuko da. Abendua ate-joka dugun honetan, ELAko hauteskunde sindikalen arduradun Txema Laisekak mezu zuzena luzatu nahi dio sindikatuko militantzia guztiari. "Baikor izateko arrazoiak ditugu, baina gauza bat argi gelditu behar da. Epealdi-trinkoa hasi aurretik jarri genituen helburuak betetzea gure esku dago, baina horretarako lan asko egin beharko dugu. Abendua hilabete erabakigarria da, 2.726 delegatu aukeratuko direlako. Azken aste hauetan egiten dugun lanaren arabera lortuko dugu helburua betetzea. Gure esku dago, baina lana lepo egin beharra dago oraindik".



### Txema Laiseka, responsable de elecciones sindicales, pide a la militancia máxima tensión en el sprint final del periodo concentrado en la CAPV

# “DE NUESTRO TRABAJO EN DICIEMBRE DEPENDE QUE LLEGUEMOS AL 40%”

A punto de concluir el tercer mes de periodo concentrado de elecciones sindicales en la CAPV, Txema Laiseka afirma que ELA tiene en su mano cumplir las previsiones y revalidar su 40% de representatividad, confirmando, de esta manera, que el modelo sindical de nuestra organización es un referente y que es apoyado por la mayoría de los trabajadores y trabajadoras de este país. “Con los datos que tenemos en la mano podemos afirmar que ELA va a seguir siendo el sindicato mayoritario en todos los sectores de actividad y comarcas de la CAPV”.

A pesar de ello, Laiseka no deja resquicio al conformismo o la improvisación y lanza un mensaje de ánimo a todos los militantes. “Si mantenemos la tensión y el trabajo, en diciembre vamos a cumplir los objetivos que nos hemos marcado. El próximo mes se eligen 2.726 delegados/as, una cifra muy importante, así que no caben descuidos. Esta *txanpa* final es decisiva”.

## “SOMOS OPTIMISTAS, PERO QUEDA MUCHO POR HACER”

Aunque Laiseka se resiste a hacer una valoración definitiva de lo que llevamos de periodo electoral, tras destacar que “el proceso de elecciones sindicales se desarrolla con absoluta normalidad”, afirma que “a 31 de diciembre, el mapa sindical no va a sufrir variaciones considerables. La representatividad de cada sindicato va a oscilar medio punto arriba/abajo como máximo”.

Otro elemento a destacar es el importante descenso de delegados/as a elegir. “ En septiembre se eligieron 163 delegados y delegadas menos. En octubre 486 y en noviembre unos 500”. Este hecho es consecuencia de la importante bajada de censo en muchas empresas y la desaparición de otras. Es, sin duda, otro reflejo de la crisis.

Respecto a lo que que ha dado de sí noviembre, Laiseka destaca que ELA está mayoritariamente repitiendo y, en ocasiones, mejorando su presencia en comités y pymes, otra prueba de la estabilidad del mapa sindical en la CAPV. “Estos resultados consolidan y reafirman la línea sindical y el trabajo desarrollado durante estos años”.

## BUEN TRABAJO EN NAVARRA

Mitxel Lakuntza, responsable de ELA en Navarra, destaca del proceso de elecciones sindicales en esta comunidad la entrada de ELA en comités en los que antes no estábamos. “Hasta el momento, son ya 7 las empresas, y el trabajo que se está haciendo en otras tantas apunta a que puedan sumarse varias más". Destacar, también, que 4 de esos comités son de empresas del sur de Navarra, por lo que ELA sigue creciendo debido al importante nivel de concurrencia en empresas de otros, marcando una mayor presencia en una zona donde se confirma el respaldo a un modelo sindical que todavía no ha visto su techo.

Por federaciones subraya los resultados que se están obteniendo principalmente en los comités de Zerbitzuak-Iruñea. “Hay muchos delegados/as en juego y estamos obteniendo buenos resultado, mejorando nuestra representatividad en muchos casos”. También se muestra optimista sobre los resultados en la industria de Iruñea. “Partimos de una representatividad alta y con mucha pelea la estamos manteniendo”. Lakuntza termina su foto de las elecciones pidiendo a la militancia que siga trabajando con la máxima ilusión y tensión, sobre todo, en las pymes. “Nuestras mayores dificultades están ahí; sobre todo, en Iruñea. Tenemos un gran reto al que hacer frente”.

### AZKEN EGUNETAKO HAINBAT EMAITZA

ARABA
* **Ayuntamiento de Gasteiz. 17** de 34. Antes 13 de 28.
* **Mercedes. 7** de 27. Antes 4 de 27.
* **Hennes&Mauritz S.L. 3** de 3. Antes 5 de 5.

BILBO
* **Museo de Bellas Artes. 5** de 5. Antes 5 de 5.
* **Vial Industria Farmacéutica. 9** de 9. Antes 4 de 9.
* **Colegio Nuestra Señora del Pilar. 5** de 5. Antes 5 de 5.

ESKUMALDEA
* **MESA. 6** de 13. Unión de dos empresas.
* **Técnicas Hidráulicas. 5** de 5. Antes 5 de 5.
* **Industrias Ibaiondo. 4** de 5. Antes 4 de 5.
* **Basalan 9** de 9. Antes 9 de 9.

EZKERRALDEA-KADAGUA
* **Sertisa. 2** de 3. Antes 2 de 3.
* **Construc. Navales Celulosas y Sid. 3** de 5. Antes 3 de 5.
* **Car Bizkaia. 3** de 3. Antes 2 de 5.

GERNIKA-DURANGO
* **Coleg. Sagrado Corazón, Bermeo. 5** de 5. Antes 5 de 5.
* **Pierburg SA (Carbureibar). 6** de 13. Antes 3 de 13.

IBAIZABAL-NERBIOI
* **Troqueles Mecanizados. 2** de 3. Nueva empresa.

OARSO-BIDASOA
* **Papresa Rentería. 5** de 13. Antes 6 de 13.
* **CAF-Irún. 5** de 13. Antes 5 de 13.

DEBA
* **Hijos de Juan de Garay. 8** de 13. Antes 9 de 13.

DONOSTIA
* **Construcciones Moyua. 5** de 9. Antes 4 de 9.

ORIA-GOIERRI
* **CAF-Beasain. 8** de 25. Antes 9 de 23.
* **CIE-Legazpia. 7** de 13. Antes 8 de 13.

NAVARRA
* **Lazaro Taberna. 4** de 9. Antes 2 de 9.
* **Grupo ISS European Cleasing. 3** de 17. Antes 2 de 17.
* **Timac. 1** de 9. Antes 0.
* **Iberfruta. 3** de 5. Antes 4 de 9.
* **Construcciones Mecánicas Rafal. 1** de 1. Antes 0.
* **Eurocen Biana. 1** de 1. Antes 0.
* **Construcciones Irumendi. 1** de 1. Antes 0.

# LABURREAN

## PAROS EN EL AYUNTAMIENTO DE GETXO

Los empleados/as municipales en el ayuntamiento de Getxo realizaron paros de dos horas diarias la semana del 22 al 26 de noviembre. El seguimiento de la huelga fue generalizada entre los empleados/as municipales, con el 100% de paro en las brigadas de obras y otras dependencias municipales. La huelga es consecuencia de los recortes que el alcalde –Imanol Landa, del PNV– ha decidido realizar a los trabajadores/as municipales, que va desde la disminución real de los salarios hasta eliminar todas las mejoras sociales establecidas en el acuerdo y convenio colectivo.

Juan Carlos Polo, secretario federal de ELA-Gizalan, denuncia que “Imanol Landa ha blindado el Ayuntamiento de Getxo con decenas de ertzainas antidisturbios, impidiendo el paso a cualquier trabajador/a o ciudadano/a, en una decisión unilateral y prepotente. Incluso ha impedido el paso a los miembros de la Junta de Personal y Comité de Huelga, lo que supone una vulneración del derecho fundamental a la libertad sindical”.

Polo considera que Landa utiliza a las fuerzas de seguridad como parapeto a su incompetencia, y que pretende convertir un conflicto laboral en una cuestión de orden público. Por último, añade que “si el alcalde continúa en su prepotencia neoliberal en contra de los intereses de las trabajadoras y trabajadores del municipio de Getxo, se convocarán nuevas movilizaciones”.

## BESTELAKO INGURUMEN POLITIKEN ALDE

ELAko ordezkaritza zabala Mexikoko Cancun hirian izango da azaroaren 29tik abenduaren 6ra bitartean. Egun horietan Klima Aldaketari buruzko 16. biltzarra egingo da bertan, Nazio Batuen Erakundeen eskutik. ELAko ingurumen arduradun Ainhara Plazaolak nabarmentzen duenez, “ez dugu inongo konpromiso esanguratsurik espero”. Goi bilera dela eta, mundu zabaleko erakunde ekologista, eragile eta sindikatuk hamaika ekimen antolatu dituzte, Cancunen bilduko diren ordezkariei berandu baino lehen klima aldaketaren inguruko neurriak hartu ditzatela exijitzeko. “Ez bada konpromisorik hartzen eta ez bazaio gaiari benetako irtenbide bat ematen, atzera ezinezko puntu batetara iritsiko gara. Arazoari aurre egiteko neurriak hartzea agintarien esku dago, erabaki politikoa da”.

## FINALIZA LA HUELGA EN EL TRANSPORTE PÚBLICO DE BILBAO

Tras el acuerdo alcanzado por el comité de empresa y la dirección de Veolia se ha desconvocado la huelga en el transporte público de Bilbao, que se ha prolongado por 15 días. En opinión de ELA, el acuerdo no aborda los principales problemas que tiene esta empresa, como son la distribución de la jornada anual, así como los diferentes tipos de contratación que existen. En este sentido, ELA reitera su exigencia de que los trabajadores con un contrato por el 85% de la jornada se les incremente al 100%.

Tortura

### Mikel Zabaltza hilda agertu zela 25 urte betetzen dira

# ELAK BERRIRO PLAZARATZEN DU TORTURA BERTAN BEHERA UZTEKO EXIJENTZIA



*Mikel Zabaltza*

Aste honetan 25 urte betetzen dira Mikel Zabaltza Donostiako Tranbiaren Konpainiako (CTSS) langilea Bidasoa ibaian hilda agertu zenetik; Guardia Zibilak atxilotu eta hainbat egunetara gertatu zen hori. Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak duela gutxi berretsi egin du sumarioa artxibatzeko erabakia, eta honek zigorrik gabe uzten ditu Mikel Zabalzaren heriotza eragin zuten torturen arduradun politiko zein egileak.

Urteurren beltz hau dela eta, ELAk berriro plazaratu nahi du sarri egin izan duen exijentzia: torturak bertan behera utz daitezela. Argitara ateratzen diren tortura kasuak ez dira bakanak; aitzitik, sistemaren baitan gertatzen dira, inkomunikazio aldiarekin honelako jokabideei atea irekitzen baitzaie, eta gainera, behin eta berriz egiten diren tortura salaketak ukatu egiten baita gertakari hauek ikertu eta argitzeko aukera.

ELAk exijitu egiten du, langile hau hilda agertu zenean bezala, inkomunikazio aldian atxilotuek esparru polizialetan pairatzen duten indefentsioa desagertzea, eta behar besteko protokoloak ezar daitezela tortura behin betiko saiheste aldera.

Azkenik, ELAk eutsi egingo dio pertsona guztientzako eskubide eta askatasun guztien aldeko konpromisoari, baita tortura salatu eta borrokatzeko borrokari ere.

Bihoa gure besarkada eta elkartasuna Mikel Zabaltzaren senideentzat.

## MIKEL ZABALTZA GOGOAN

La tortura deja huella. Siempre deja huella. Y a menudo, mata. Se podrán minimizar y disimular los rastros corporales, pero la huella permanece indeleble en la memoria colectiva de quienes la padecen, de sus allegados y de cuantas personas y colectivos de bien quieren erradicar esta práctica tan ultrajante. Hace 25 años de la detención por la Guardia Civil y posterior muerte de Mikel Zabalza, trabajador de la Compañía del Tranvía de Donostia y afiliado de ELA. Ni las versiones oficiales, ni el terror instaurado por la guerra sucia del momento, pudieron acallar y esconder la historia real, esa historia que refuerza la convicción colectiva de que fue torturado y que provocó una gran movilización social para exigir la verdad de los hechos.

Mikel entró detenido en el cuartel de Intxaurrondo y apareció muerto en el río Bidasoa. Al cabo de 25 años, la Audiencia de Gipuzkoa ha confirmado el archivo del sumario por la muerte de Mikel. Un grave episodio más de la guerra sucia tramada durante los gobiernos socialistas de Felipe González y que por mor del archivo sumarial puede hacer que queden impunes los ejecutores y los responsables políticos de su muerte. Muy al contrario, el gobierno, haciendo caso a la historia real, debiera pedir perdón a su entorno familiar ya que éste tiene pleno derecho a la verdad, la justicia y la memoria.

Vaya un abrazo solidario de ELA para Lourdes Zabalza y sus hermanos, porque hoy Mikel sigue siendo patrimonio de cuantos exigimos la verdad, de cuantos exigimos se erradique definitivamente la práctica de la tortura y se depuren las responsabilidades pendientes. Como nos decía Lourdes hace ya cinco años "me gustaría que si Mikel es un símbolo para alguien lo fuera como un símbolo contra la tortura". Orbaizeta seguirá siendo el albergue de la memoria colectiva que no deja impune la tortura y la muerte.

**Patxi Agirrezabala,**
**responsable de comunicación**

# "LANGILE BEZALA ERRESPETA GAITZALA EXIJITZEN DIOGU EUSKO JAURLARITZARI"

ELA, LAB eta CCOO sindikatuek deituta ehunka lagun bildu ziren azaroaren 26an Eusko Jaurlaritzak Gasteizen duen egoitzaren aurrean. Arabako ELA-Gizalan federazioko arduradun Ramon Uriartek kontzentrazio honen helburua laburtzen du.

"Hiru gauza adierazi nahi izan dizkiogu Eusko Jaurlaritzari. Lehenengoa, lapurtu digutena itzuli diezagula. Bigarrena, ez dezala lanposturik suntsitu. Hirugarrena, errespeta gaitzala, bai pertsona eta bai langile garen aldetik. Nazkatuta gaude sektore publikoko langileen inguruan zabaltzen ari diren gezur eta intoxikazioekin".




Labur Breves

### • Osakidetzaren jarrera baztertzailearen aurka

Azaroaren 24an Osakidetzako Mahai Sektoriala bildu zen, hilabete luzetan konbokatu gabe egon ostean. Hori dela eta, ELA eta LAB sindikatuak deituta, bilkurak egon ziren hainbat ospitaleetan, osasun publikoa jasaten ari den erasoa salatzeko. Bilkurak Gorlizen, Donostian eta Gasteizko Las Nieves ospitale psikiatrikoan izan ziren, *Kalitatezko Asistentzia. Condiciones de trabajo dignas. Negoziazioa orain!* lelopean.

ELAk Osakidetzan duen arduradun Mirari Irure kezkatuta dago oso Eusko Jaurlaritzaren osasun sailak aurrera daraman politikarekin. "Azken hilabeteetan ezagutu ditugun erabaki guztiak osasun publikoaren kontrako eraso zuzenak dira. Osasun sistema publikoak kalitatezko zerbitzua emateko beharrezko dituen giza-baliabide zein baliabide materialak murrizten ari dira etengabe: soldatak, langile-kopurua, aurrekontua...".

Bestalde, Mirari Irurek Osakidetzaren jarrera baztertzailea salatu nahi du. "Kontua ez da soilik ez gaituztela deitzen osasun publikoan hartzen ari diren neurriei buruz eztabaidatzeko. Ez dizkigute hartzen dituzten erabakiak jakinarazten, eta prentsa edota filtrazioen bidez ezagutu behar izaten ditugu. Lotsagarria eta salagarria da gobernu batek horrelako jokaera izatea".

### • Acuerdo en la limpieza viaria del Txorierri

La pasada semana, ELA –único sindicato con representación– y la dirección de empresa Urazca llegaron a un acuerdo en el convenio colectivo de los trabajadores/as de la limpieza viaria del Txorierri.

Este colectivo –junto a los trabajadores/as de la recogida de basuras de los municipios de Sondika, Lezama, Loiu, Derio, Zamudio y Larrabetzu– realizaron al principio de mes tres días de huelga para denunciar el bloqueo de las negociaciones que comenzaron hace casi un año.

Este acuerdo, que tiene una vigencia de 4 años, contempla una jornada de 35 horas, que supone una reducción de más de 60 horas, una subida salarial del IPC + 1,25% para cada uno de los años, y una mejora ostensible en las bajas y las licencias.

ELA quiere destacar que este acuerdo pone fin al conflicto de los trabajadores/as de la limpieza viaria, pero no soluciona el del colectivo de recogida de basuras, ya que la dirección, a fecha de hoy, ha realizado una oferta insuficiente.

Los trabajadores/as están a la espera de una nueva propuesta y no descartan nuevos días de huelga.

## Jone Bengoetxea, ELAko genero arduraduna

# "INDARKERIA SEXITAREN AURREAN EGITURAZKO IRTENBIDEAK BEHAR DITUGU"



Munduko emakumeen %70ak gutxienik bere bizitzan behin bortizkeria pairatu izan du. Nazio Batuen Erakundeak berriki eman du datu beldurgarri hau, azaroaren 25ean mundu zabalean antolatu zen Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunaren karietara. Gurean egoera ere kezkatzeko modukoa da. Aurten, dagoeneko, indarkeria sexistak sei emakume hil ditu. Datu hauen aurrean, ELAko genero arduradun Jone Bengoetxeak argi du azaroaren 25a aldarrikapen eta borroka eguna dela, ez bakarrik hitz eder eta politikoki zuzenak egiteko eguna.

**-Emakumeen kontrako bortizkeria ere hedatuta dago lan munduan. Zein hausnarketa egiten da ELAtik?**

-Indarkeria sexista emakume eta gizonen arteko berdintasun ezaren adierazpiderik latzena da, eta sindikalgintzatik asko dugu esateko. Ekonomiaren abagune honek, gainera, arazoa areagotu besterik ez du egin.

Krisia dela-eta, Estatuko gobernua eta euskal administrazioak erabakitzen ari diren neurri eta erreforma estrukturalek –lan erreforma, pentsioen erreforma, negoziazio kolektiboarena...– ekonomia eta lan mundua desarautzeko helburua dute eta bizimodu prekariorako bidea prestatzen dute.

Pertsonen autonomia eta ekonomikoki aurrera ateratzeko aukera eragozten dute, batik bat gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboentzat. Era honetan iraunkor bilakatzen dira pobreziaren feminizazioa, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun endemikoak eta, horrenbestez, bortizkeria estruktural eta sexista nagusi den egoerak.

**-Azaroaren 25ean ELAk salatu zuen gobernuek krisiari aurre egiteko hartutako neurriek egoera okertu besterik ez dutela egingo.**

-Hartu dituzten neurriek ondorio batera garamatza: ez dago konpromiso politikorik emakumeen kontrako bortizkeriaren prebentzio, arreta eta desagerpena lantzeko. Hau zinez gai funtsezkoa da, agenda politikoan bigarren mailako tokia ematen zaion arren.

**-Zer proposatzen dugu bortizkeria sexistari erantzuteko?**

-Egiturazko erreformak eta irtenbideak behar ditugu, ez petatxuak. Gehiengo sindikaletik oldar sindikal feminista aldarrikatzen dugu. Publiko egin dugun agirian hori guztia gauzatzeko zazpi puntuko proposamen-zerrenda garatu dugu.

- Bortizkeriarik, hertsapenik eta jazarpen sexual edo sexistarik gabeko lan mundu baten alde, emakumeen aurkako bortizkeriarik gabea, nabarmena edo ezkutukoa dela ere.
- Emakumeek lan munduan dituzten baldintzak duintzea eta diskriminazio oro desagerraraztea, batik bat kolektiborik ahulenei arreta emanez: hor ditugu, besteak beste, sektore feminizatuak (garbitasuna, zaintza, etxeko langileak...).
- Bestelako enplegu politika bat, Euskal Herriko langileen beharrizanetan oinarrituta dagoena.
- Ugaltzea interes publikoko gaitzat hartzea, eta emakume zein gizonezkoen sexu- eta ugaltze-eskubideen aldarrikapena, baita lan munduan ere.
- Gizarte babeseko sistema justu eta solidarioa bermatzea. Pentsio duinak eta emakumeei bizimodu duina bermatuko duen gizartebabesa.
- Lantokietan zinezko berdintasun planak, betebeharrekoak izango direnak.
- Lan-antolakuntzaren kultura aldatzea, ardurak benetan partekatuak izan daitezen eta erantzukidetasuna lor dezagun.




*El 25 de noviembre, convocadas por la mayoría sindical vasca –ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE e Hiru– cientos de personas se reunieron en las cuatro capitales de Hego Euskal Herria con motivo del Día Internacional Contra la Violencia hacia las Mujeres. En la foto, la concentración celebrada de Bilbao.*

## Labur Breves

### • Pasaian kanpoko kaia egitearen aurka

ELAk Pasaiako kanpoko kaiaren aurkako helegitea jarri du Madrilen. Horretarako txosten luze eta zabala aurkeztu du –txostena web orrialdean irakurri liteke; *www.ela-sindikatua.org*–. Ingurumen arduradun Ainhara Plazaolak salatzen duenez, portua ez da beharrezkoa; ingurumen, parte-hartze eta ekonomia arrazoiak azaltzen ditu horretarako.

"Egungo portua berritu eta bertan dauden baliabideak optimizatu behar dira. Hortik hasi beharko litzateke badiaren biziberritzea. Ez dago arrazoi ekonomikorik Pasaian kanpoko portua egiteko. Salgaien garraioa ez da gehitu azken urteetan, jaitsi baizik. Kostuari dagokionez, itzela da. Askoz ere onuragarriagoa izango litzateke diru hori gizarte zerbitzuetan erabiltzea: osasun, hezkuntza edo etxebizitza arloan, esaterako. Jaizkibelgo itsasadarrak duen balio ekologikoa ere kontutan hartu beharra dago".

### • Interior anula la reunión prevista con ELA

Representantes de ELA-Ertzaintza tenían previsto reunirse el miércoles 24 de noviembre con Rodolfo Ares, consejero de Interior del Gobierno Vasco. La reunión la había convocado el propio Ares, con el objetivo de presentar y entregar a este sindicato la propuesta del Plan de Reorganización y Modernización de la Ertzaintza. Sin embargo, pocas horas antes de la cita Rodolfo Ares la canceló, alegando problemas de agenda.

Rubén Espino, responsable de ELA-Ertzaintza, considera que "esta anulación supone que nuevamente se aplica mobbing sindical al único sindicato que confronta con los planes de ajuste y precarización de la Ertzaintza. Y más teniendo en cuenta que el 18 de noviembre Ares se reunió con ErNE, y los días siguientes con el resto de sindicatos".

Ante esta situación, denuncia el silencio de las organizaciones que ya conocen el mal llamado plan de modernización. "¿Por qué callan? ¿Qué se esconde detrás de ese silencio? ¿Que los y las Ertzainas no tengamos posibilidades de reacción hasta que ya esté tratado en el Parlamento?"

**www.ela-sindikatua.org**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela-sindikatua.org**

**Franqueo concertado nº 08/207**